

23 ARABA

Baia ibaiko ur-jauziak



Ingurumen-garrantzia

Baia ibaiko ur-jauzien ibilbidea aparta da ibai-tarte horretaz gozatzeko, landare-estaldura oneko ingurua izanik. Bertan lizarrak, sahatsak eta haltzak nabarmentzen dira, ibai-ertzeko basoa osatuz, non eta espezie

ezberdinetako haritzia nagusitzen den Gorbeia Parke Naturaleko eremuan. Faunaren hainbat espeziek ibaia eta ibai korridorea habitat gisa darabilte. Igaraba (*Lutra lutra*) eta bisoi europarra (*Mustela lutreola*) bezalako

espezieak nabarmendu behar dira. Arrain-espeziei dagokienez, amuarrain arrunta (*Salmo trutta*), barbo arrunta (*Barbus graellsii*) eta lolina (*Chondrostoma miegii*) nabarmentzen dira.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 6 km



Ordu 1 eta 10 min



Udalerrria:

Zuia

Hurbileko herria:

Sarria



Ibaia:

Baia



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



711 m



118 m



658 m



85 m



**BAIA IBAIKO
UR-JAUZIAK**

Baia ibaiko ur-jauziak



Non dagoen eta nola heldu

Baia ibaiko ur-jauzien ibilbidea erraza eta atsegina da. Arabako Lurralde Historikoko ipar-mendebaldean kokatzen den ibaiaren ibilguari jarraituko diogu, Zuiako udal barrutian eta Gorbeia mendien eskualdearen barruan. Ibilbidea hasteko gertuen dagoen herria Sarria da. Bertara Murgiatik joan gaitzke A-4414 errepidea hartuz.

Sarria herritik Gorbeia Parke Naturaleko interpretazio zentroraino garamatzen pista hartu behar dugu. Interpretazio zentroko aparkalekuan ibilgailua utzi, ibilbideari oinez ekingo diogu, ibaiaren paraleloan eskuin ertzeko pistatik.

Harizti batean zehar egingo dugun ibilbide guztian, ur-jauzi txikiak eta turrustak agertuko zaizkigu, aukera eskainiz atsedena hartzeko eta ibai aldeko paisaiatzat goatzeko. Mila eta ehun metro inguru ibili ondoren zubi batetik ibaia gurutzatuko dugu eta pistan aurrera egin, borda bat eskuinaldean utziz. Gure ezkerrean ibaiak, lizarrez eta sahatsez osaturiko ibaiertzeko landaredia nabarmenduz, ibai-paisaia ederra eskaintzen digu. Pistatik jarraituko dugu ibai ibilguan aurrera, esker-eskuma haritzez inguratuta. Bi koma zortzi kilometro inguru ibili ondoren pista bitan banatzen da ibaia zubi batetik gurutzatzeko. Zonalde horretan, ibaian gora zein ibaian behera, hainbat ur-jauzi goatzeko aukera izango dugu. Itzulera pista beretik egingo dugu.

Ibilbidea urteko edozein sasotatik egin daiteke, baina euria egiten duen garaian ur-jauzi ederrez goatzeko aukera izango dugu.



Interpretazio zentroa
Aparkalekua

Ur-jauzia 1

Zubia

Panelak

Ur-jauziak 2

Aldarro
txabola

Altitudea (m)

730
710
690
670
650

0,0 0,5 1,0 1,5 2,0 2,5 3,0 3,5 4,0 4,5 5,0 5,5 6,0

Distantzia (km)

Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztia hemen:



Wikiloc

Baia ibaiko ur-jauziak

